



Vanpopel

Maria Armendariz,
Aitor Badiola eta
Zuhaitz Gurrutxaga

TOKIKOM



LAGUNAK KOLTXOI DENDA-TEXTIL HOGAR

**ERGO eredua
OM - 022**

**MIKROFIBRA
OIHALAREKIN**

1750 €

LARRUZKOA

1995 €



**ERGO eredua
FT2 -
Spa larruzkoa**

2995€

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

UDAZKEN KOLORETAN

*“Udazken koloretan,
landen lurrinak zeharkatuz...”*

Oraindik gure mendi eta zelaiek udazkeneko soineko hori eta gorria jantzi ez badute ere, termometroan eguzkiaren beroak utzitako arrastoa hoztu ez den arren, gaztainak lurrera erortzen hasi dira jada, zuhaitzak biluztuz. Uda joan zaigu, egutegia lekuko, udazkena etorri da.

*“Zuhaitz biluziaren
gerizpean orpondoa,
orbelaren hilobi,
horiz eta gorriz
dena lokarturik,
dena lokarturik...”*

Baina euskaldunok behin eta berriz erakusten ari garen moduan, oraingoan ez dago *dena lokarturik*, Benitoren abestiak dioen bezala. Gu ez gaude lokarturik, esna gaude, esna eta erne. Gero eta gehiago, behin eta berriz, pausoz pauso, gelditu barik erakutsi dugu Euskal Herriak justizia eta askatasuna eskatu eta behar dituela; ez ditugula zenbait auzi eta jarrera

ulertzen, ezta ondo ikusten ere, eta denok elkarturik bidea lauagoa izango zaigula. Guk nahi dugun modukoak izatea nahi dugula, erabakitzeko eskubidea behar beharrezkoa dela Euskal Herriak bakea, justizia eta elkartasuna lor ditzan. Gure herriak subiranotasuna behar duela. Hau guzti hau Euskal Herriari beraien soineko hori eta gorria indarkeriaz eta inposaketaz jantzi nahi diotenen gainetik. Joan den igandean *udazken koloretan* leiho batean ikusi nuen moduan, ikurriña erdian eta albo banatara bandera gorri eta zuria eta txuri-urdin bat; denok elkarturik. Joan den igandean Azpeitian *landen lurrinak zeharkatuz* sentitu ahal izan nuen moduan, gorri, zuri eta berde, denok elkarturik.

Utz dezagun ba, *udazken koloretan*, gure mendi eta zelaiak horiz eta gorriz beren kabuz jantz daitezzen, inoren inposaketatik haratago.

Izaro Etxegibel Soraluze



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Behin eta berriz, pausoz pauso, gelditu barik erakutsi dugu Euskal Herriak justizia eta askatasuna eskatu behar dituela, eta denok elkarturik bidea lauagoa izango zaigula”

600 LAGUN DITUGU FACEBOOK-EN!

**EGIN
ZAITEZ
GURE
LAGUN!**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



SANLO FAMILIA GERO ETA

Argazki batek mila hitzek baino gehiago balio du, eta oraingoan ere, ez da apenas hitzik behar beheko irudiaren esanahia aurrera eramateko. Leek, senideek eta ikusleek osatzen dute familia hori, eta astero-astero egiten dute bat kantxan. Bakoitzak bere zeregina du, eta batasunean oinarritzen da Sanloren arrakasta.



Sanlo eskubaloi taldeak joan zen asteburuan ekin zion 2011-2012 denboraldiari. 11, 4 eta 230 dira klubaren aurtengo zenbakiak. Hau da, federatutako 11 talde osatu dituzte (neskenak, sei; eta mutilenak, bost); lau talde daude Eskubaloi Eskolan (neskenak bi, eta mutilenak beste bi), eta guztira 230 jokalarik inguru ditu klubak. Ez dira edonolako zenbakiak azken urteotan Sanlok lortu dituenak, eta argi ikusten da familia handitzen ari dela urtetik urtera.

Neskak gehiago dira familia honetan, izan ere, neska gehienek eskubaloia aukeratzen dute lehenengo kirol moduan. Mutilak berriaz, futbola, pelota eta beste hainbat kirolekin konpartitu behar dituzte. Hala ere, eskubaloiak Elgoibarren jendetza handia mugitzen duenik ezin da ukatu. Horren sekretua eguneroko lanean dagoela uste du Cesar Arriola Sanloko presidentea. Gainera, gurasoek inplikazio handia daukate, eta kale presentzia izugarri lantzen dute. Gurasoen eta herritarren babesak kluba handitu eta aberastu egiten du.

Handitzearen arazoak

Handitasunak, baina, baditu zailtasunak ere. Adibidez, hainbeste talderentzako entrenatzaileak lortzea ez da lan erraza. "Hori da lanik handienetakoa", Cesarren hitzetan. Entrenatzaile batzuk kanpotik ekarri dituzte aurreko Elgoibarko taldeak entrenatzera, baina horrez gain, Sanlok entrenatzaileen formaziorako teknifikazio ikastaroa eskaini du, eskubaloi federazioko teknikarien bitartez. Sanloko 25 kidek hartu dute parte ikastaro horretan, eta horietako batzuk lanean daude dagoeneko. "Zorionez, talde bakoitzak bere entrenatzailea dauka".

Era berean, entrenatzeko eta partidak jokatzeko lekua eta ordutegiak osatzea ere buruhauste handia izaten da. Asteburuetan kiroldegia jardueraz beteta egoten da, eta talde guztiak partiden agendan kokatzea ez da erraza izaten. Presidenteak esandakoaren arabera, Eskola Kiroleko arduradunarekin eta gainerako kirol taldeekin harreman ona dauka Sanlok, eta denen artean, eta patronatuaren laguntzaz osatzen dute asteburuko partiden ordutegia.

Federatutako 11 talde ditu Sanlok, eta Eskubaloi Eskolan beste lau talde

HANDIAGOA

Itzeko. Bere kabuz berba egiten du erretratu honek. Sanlo familia da, eta handituz doa urtetik urtera. Jokalariak, entrenatzaileak, batzuk jokatu egiten dute, besteek jokalariai prestatu eta ikusleek animoak ematen dizkiete guztiei. Lan horren guztiaren

Ainhoa Andonegi



Denboraldirako helburuak

Senior mailako nesken eta mutilen taldeak Euskal Ligan jokatzen dute. Mutilen taldeak iaz lortu zuen igoera, eta maila berri horretan jokatzeke hainbat fitxaketa garrantzitsu egin dituzte: Besteak beste, Gorka Garate Arrateko jokalaria ohia, eta Julen Hernandez Zumaiako Pulpo taldekoa. Sanloren nahia mutilen taldea goiko postuetan ibiltzea da. Nesketan, aldiz, igoera fasea jokatzeke aukera ere izan dezakete la uste dute. Era berean, kadete eta jubenil mailako mutilen taldeak Euskal Ligan jokatzea nahiko luke klubak, nesken taldeak bezalaxe.

Dena den, satisfaziorik handiena kantxa ikuslez beteta egoteak ematen dio Cesar Arriolari. Iazko denboraldian senior mutilen partidetan sortu zen giroa "sekulakoa" izan zela adierazi du, eta, bereziki, igoera faseko partidak dauzka gogoan. "Eibarren jokatu genuen igoera faserako sailkatzeke azken partida, Unibertsitate Laboralean, eta ikusleek sortu zutena ahaztezina izan zen", azaldu du.

Gai horri lotuta, CD Elgoibarko Erregional mailako taldeak eta Sanloko senior mutilen taldeak daukaten harremana nabarmendu du

presidentek. Bi kirolak konpetentzia izan beharrean, batak besteari babes handia ematen diotela azaldu du: "Izugarría! Baten igoera bestearen poztasuna izan da". Horrekin gozaten du Sanloko presidentek, eta gustatuko litzaioke senior nesken partidetara ikusle gehiago joatea. Mutilekin alderatuta, nesken partidak nahiko hotzak izaten dira, eta haiek ere herritarren babesa behar dutela aipatu du.

Aurrekontua

Aurrekontuari dagokionez, 90.000 euro inguru mugitzen du Sanlok, baina presidentek dio ez dela aurrekontu erreala. Izan ere, gurasoek jartzen dituzte partidetara joateko autoak, jokalariek erosten dituzte txandalak, eta beste hainbat gastu ere aurrekontutik kanpo geratzen dira. Jokalari bakoitzak bere fitxa ordaintzen du, loteria saltzen dute klubarentzat dirua lortzeko, eta ez du inork kobratzen. Elgoibarren ez da inor aberastuko eskubaloian jokatuz, baina kasu honetan, zaletasuna eta klubarekiko lotura diruaren gainetik daude.

daude. Guztira, 230 jokalaria inguru ditu klubak aurtengo denboraldian

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irueta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



EL GOIBARRO UEMLA



MENDIARRO UEMLA



AIRE, AIRE ET AIRE



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

PNV: F5, eguneratu

2011. urtearen bukaeran gaude, jeltokideak ohartu ez badira ere. Joan zen osteguneko Osoko Bilkuran Alfredo alkateak oposizio buruari birritan esan zion aurrera begiratu behar dela, eta ez atzera.

Hala ere, EAJk iraganeko bi mozioei hautsak kendu zizkien, Bilduk aurkeztutako biak atzera botatzeko, tartean gure izenean sartu zuten mozioa.

Zer zioten PNVkoek? AHT natura eta ekonomia mesederako proiektu bat dela, eta, ez zuten zalantzan jarri Ertzaintzaren jarrera basatia, besteak beste, nahiz eta teknologia berriei esker, gaur egun irudi pila bat ikusteko aukera dagoen. Halaber, (ez dakigu zeinek mehatxatzen dituen) enpresen alde azaldu ziren, baina esplotazio baldintzetan diharduten langileei buruz ez zuten hitzik ere esan.

Halere, pozten gara, Kukutzatik Urbinara eta Itoizetik Lemoizera gero eta jende gehiago konturatzen ari delako zer defendatzen duen PNVk: beste guztion bizkarretik bizi nahi izatea.

Berriz diogu, etorkizunik gabeko proiektu honek itoko gaitu. Oraindik Gipuzkoan lanen %10a besterik ez da egin eta hobe AHT lehen bailehen gelditzea, bere kabuz erortzen uztea baino. Ingurugiroak eta ekonomiak eskertuko dute.

Horregatik Elgoibarko EAJri galdetzen diogu: zuek zuzenean aberasten ari zarete lan hauekin, edo oraindik ez zarete konturatu beharrezko kaikuak zaretela zuen alderdiko batzuz aberasteko?

AHT EZ Elgoibar

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Andres
Alberdi

Joan duk uda, Angel, eta aldaketa nabarmen batekin niri dagokidanez: irail honetan, jubilatutako eman zidatek lehenengoz!

Gazi-gozoa gertatu zaidak kontua. Goxo hartu diat, bai, borondatezko erretreta izan baita nirea; baina gazia ere egin zaidak, egoerak bizi-denboraren joanaren derrigorra adierazten baitu. Ezin ihes

egin horri, eta, bizitzako azken atarian, trumilka zetozkidak galderak, zalantzak... burura. Moldatuko ote naiz bizi-modu berrira?, duk galdera nagusia.

“Moldatuko ote naiz nire bizimodu berrira?, duk nire galdera nagusia”

Ipuin batekin gogoratu nauk. “Bi igel omen zituan, eta esne-gainez beteriko ontzi batean erori zituan istripuz. Hondoratzen hasi zituan berehala, ezinezkoa baitzen igeri egitea ore hartan. Hasieran, pentsatu zitean hankak indarrez astinduz lortuko zutela ontziaren ertzera iristea, baina alferrikakoa izan zuan eginahala. Gero eta zailagoa zitzaiean burua azalratzea eta arnasa hartzea.

Honela esan zian haietako batek: *Ezin diat gehiago; ezinezkoa duk hemendik irtetea. Ore honetan ez zegok igeri egiterik, eta, itoko naizenez, zertarako jarraitu ahaleginean?* Igeri egiteari utzi zioan, eta berehala hondoratu betiko.

Beste igelak, aldiz, bere buruari: *Ez duk erraza aurrera egitea ore honetan! Itotzeko arrisku bizia dudala jakinik ere, ordea, azken hatsa botako diat borrokan!* Hankak astinduz jarraitu zian, beti toki berean. Orduak eta orduak eman zizkian zentimetro bat bera ere aurrera egin gabe. Baina, bat-batean, hankak hainbeste astintzearen ondorioz, esne-gaina gurin bihurtu zuan. Tipi-tapa eta irrataka, ontziaren ertzera iritsi zuan, eta salto batez, etxerako bidea hartu zian”. Ea nik ere, bigarren igeltxoak bezala, ez diecian federik galtzen bizitzari eta ametsei.



Anjel
Ugarteburu

Oraindik gazte hago hi, Andres!
Hirekin gintuan irakasle eta beste lankide asko ekaineko bazkari hartan, hire jubilazioaren hasiera ospatzen. Aro berriari ekiteko era egokia eta atsegina izan zenik ez deustak ukatuko.

Gizakiak betidanik nahi izan jok betiko gaztetasunaren edabea lortzea, baina handi-mandiek ere ez juek horrelakorik lortu. Argi jagok diruarekin ezin dela eskuratu. Ez zuan giro izango injustiziaz ondo hornitutako munduan, horrelakorik salgai izanez gero.

Gizakiaren bizitzak hiru aro omen jittuk. Hala izan duk gurean gehienentzat: heren bat ikasteko, bigarren herena lanerako eta hirugarrena, osasunak lagun, lasai bizitzeko. Gu zorioneko izan gaituk, hirugarrenean sartuta osasuna ere lagun baitugu. Denek ezin juek hori esan. Askok ez jeukiek ikasteko aukerarik edo ikasi dutena bizitzan erabiltzeko betarik. Bigarren herenez, lanaz, zer esan? Gustuko lana gozamina duk eta horretan ere suerteko izan haizela esango neukek.

“Oraindik gazte hago hi, Andres!”

Hirugarrenaren atarian, esaera zahar baten oihartzuna zatorkidak burura: *baleki gazteak, balegi (ahal balu) zaharrak*. Horixe komeni guri, Andres! Gaztearen abildadea eta helduaren jakindadea. Eskarmentuak estaliko ahal jittuk, edadearen nahitaezko ajeak!

Jaio, hazi, heldu, zahartu eta hil. Bizitzak berez dakarren legea baino ez duk. Ederra duk urteak lagun onen inguruan eta osasunez betetzea.

Orduen menpetasunik gabeko lanari ez egiok uko egin aro berrian ere, hirugarren heren hori luzea eta emankorra izan dadin, la-gun eta etxekoen ondoan. Horixe opa diat.

Jarri ezazu zure publizitatea

B
BARREN
astekarian
943 743 704

Lanbide Heziketako ikasturte berria inauguratu du Isabel Celaa hezkuntza sailburuak IMHn

30.000 ikasle inguruk aukeratu dute aurten Lanbide Heziketa

Hezkuntza Sailak Elgoibarko Makina Erremintaren Institutua aukeratu du Lanbide Heziketaren ikasturteari hasiera emateko, eta eguaztean egin zuen ikasturtearen inaugurazioa Isabel Celaa hezkuntza sailburuak. Krisialditik irteteko tresna Lanbide Heziketa dela aipatu zuen sailburuak, eta aurtengoa, dudarik gabe Lanbide Heziketaren ikasturtea izango dela ziurtatu zuen. Era berean, lan munduan nazioartekoa izatea dela erronka gaineratu zuen Celaak, eta ikasleek ingelesa eta txinera ezagutzeari oso garrantzitsua dela azaldu zuen. Celaaren hitzetan, azken urteotako goranzko joerari eutsiz, ikasturte honetan Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 30.000 ikaslek baino gehiagok ikasiko dute Lanbide Heziketa. Horietatik 12.000 ikasle baino gehiagok erdi mailan egingo dituzte ikasketak, eta 18.000tik gora izan dira goi mailakoak aukeratu dituztenak.



Kalitate Turistikoaren diploma eman diote Txarriduna hotelari

Kalitate Turistikoarekin zerikusia duten Debarreneneko 25 enpresa saritu ditu Eusko Jaurlaritzak, Euskalit egitasmoaren barruan. Sarituen artean Elgoibarko Txarriduna hotela dago. Getariko Balentziaga hotelean egin zuten diploma banaketa, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, enpresen antolakuntza, barne kudeaketa eta bezeroen asebetetze maila hobetzea da programaren helburua.

Hainbat elgoibartar saritu ditu Bertan Sariak egitasmoak



Noticias de Gipuzkoa egunkariak antolatutako Bertan Sariak egitasmoaren barruan, hainbat elgoibartarrek jaso zuten saria joan zen astean. Herriko Antzokian egin zuten sari banaketa, eta zortzi saritatik lau, elgoibartarrek jaso zituzten. Hala, Karkizano mertzeriak herriko merkataritzaren saria jasoko zuen; Nagusilaneke Gizartekintzari emandako saria; Anateusk proiektuari berrikuntzaren esparrukoa eman zioten; eta azkenik, Itziar Ajuriari omenezko saria eman zioten, bizitza osoan izan duen ibilbideagatik. Sari banaketaren ostean, Elgoibarko kale kantariak girotu zuten ospakizuna, eta gero, luntxa izan zuten Txarriduna hotelean.

Lekua **Sartu zentro berria**



Gizarteratzeko eta lan munduratzeko Sartu Zabaltzen zentro berria inauguratu dute Elgoibarren. Arregitorre 6an jarri dute egoitza, eta herritarrei lan munduan barneratzeko aholkuak eta beste hainbat zerbitzu ekaintzea da helburua. Enplegurako zentroan, ordenagailuak eta informazio eta baliabide erabilgarriak egongo dira herritarren eskura. Zentro berria astelehenetik ostiralera egongo da zabalik, 9:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:00etara.

Berbia **'Beldur Barik'**

Elgoibarko Udalak bat egin du Berdinsareak antolatzen duen *Beldur Barik* lehiaketarekin, eta elgoibartarren adierazpen artistikorik onenak sarituko ditu. Lehiaketa honen xedea emakumeek gaur egun jasaten duten desberdintasun egoerari aurre egiteko zenbait adierazpen artistiko aitortzea, eta bultzatzea da. Lehiaketan bi kategoria daude (bata, 12-17 urteko ikasleentzat, eta bestea, 18 eta 26 urte bitarteko gazteentzat). Kategoría bakoitzeko irabazleak mila euroko saria jasoko du, eta gainera, lehiaketa orokorretik kanpo, Elgoibarko Berdintasun Sailak lehiaketako kategoría bakoitzean izan den lan onenari 300 euroko saria emango dio. Lanak aurkezteko epea azaroaren 11n amaituko da.

Irudia **1961eko Elgoibar ikusteko ilarak**

Kultur Etxeko hitzaldi gela txiki gelditu zen joan zen astean. Dimas Gilek ekoiztutako filma eskaini zuen Plaza Txikiko jai Batzordeak, eta sekulako jende ilarak sortu ziren 1961eko Elgoibar nolakoa zen ikusteko. Hiru egunez eman zuten dokumentala, eta egunero bete zen Kultur Etxeko hitzaldi gela. Antolatzailak pozik geratu dira herritarrek emandako erantzunarekin.



Bi ibilgailuk su hartu dute Plaza Txikian

Eguen goizaldean auto batek su hartu zuen Plaza Txikian, eta sutearen ondorioz, aldamenean aparkatuta zegoen furgoneta bat ere erre egin zen. Udaltzainburuak esandakoaren arabera, goizko 4:20an piztu zen sua, eta eskura zituzten bitartekoekin sua ezin zutela itzali ikusita, Eibarko suhiltzaileei deitu zieten. Suaren sorburua autoa izan zela jakinarazi zuen udaltzainburuak, baina nahita eragindakoa izan ote zen jakiteko ikerketa zabaldu beharoko dela gaineratu zuen.



Hamaika Telebista, Euskaltelekin

Euskaltelek eta Hamaika Telebistak aurrerapauso berri bat eman dute Hamaika Telebistaren Gipuzkoako emisioan, eta joan zen astetik, dialeko 11. zenbakian ikusi daiteke katea. Programazioari dagokionez, Hamaika Telebistak bi multzo edo bloke nagusi ditu Gipuzkoan. Batetik, Hamaika Telebistaren programazio orokorra, eta bestetik, Gipuzkoarako propio ekoiztutako programa saila.

San Migel jaietako zozketa


San Migel jaietan txekorra zozketatu dute, eta 8.465 izan da zenbaki saritua (erreserbakoa, 5.954).

IMHn inauguratu du Isabel Celaa hezkuntza sailburuak Lanbide Heziketako ikasturtea. Lanbide Heziketa ala unibertsitate ikasketak aukeratuko zenituzke?



Atsegin Uzuriaga
37 urte, Kutxako zuzendaria

Nik biak probatu ditut, eta Lanbide Heziketarekin geratzen naiz. Hori xe gomendatuko nioke edozeini; lehenengo behintzat, Lanbide Heziketa probatzeko. Gero ere izango du astia besterako, baina lana zer den ikasteko, hobeak dira moduluak eta azken batean, bi urte baino ez dira.




Iagoba Zabala
36 urte, Kamioilaria

Lanbide Heziketa, dudarik gabe. Nik hori ikasi nuen, eta uste dut hori dela egokiena. Baina bakoitzak ikusi behar du, eta ikasi nahi denaren arabera aukeratu behar da. Baina lanerako bada, uste dut Lanbide Heziketak ate gehiago zabaltzen dituela. Bakoitzak ikusi behar du.



Igor Mugertza
44 urte, mandrinadorea

Orain momentuan, uste dut hobe dela Lanbide Heziketa aukeratzea. Lanerako, iruditzen zait aukera gehiago eskaintzen dituela Lanbide Heziketak eta orain gehiago, egoera ekonomikoa dagoen moduan egonda. Baina hala ere, bakoitzak ikasi nahi duenaren arabera erabaki behar du.



Ibai Gurrutxaga
32 urte, informatikaria

Egitea nahi duzunaren arabera erabaki behar da hori. Hau da, bakoitzak ikasi eta egin nahi duenaren arabera. Ez dut uste bat, bestea baino hobe denik, baina bakoitzak bere go-goari jarraitu behar dio eta momentuaren arabera erabaki. Biak dira egokiak, bakoitza bere neurrian.

■ SEMAFOROA



Madala inguruan dirua ateratzeko kutxazaina behar da: “Madala ingurunean dendak ugaritu egin dira azken urteotan, eta Upaiz Zaharra inguruak ingar handia hartu du. Inguru honetako merkatariek behin


baino gehiagotan hitz egin dugu gai honi buruz, eta, gure ustez, dirua ateratzeko kutxazain automatikoren bat behar da ingurune honetan. Gure eskaria aintzat hartzea eskertuko genuke, izan ere, erosleei erraztasunak eman behar zaizkiela uste dugu”.



Noiz arte aparkatuko dituzte udaltzainek euren autoak San Frantzisko iturriaren goiko aldean?: Herritar batek egin dio galdera hori BARRENI, izan ere, bere ustez aparkalekuak kentzen dituzte, eta beste lekuren batean utzi beharko lituzkete autoak udaltzainek. BARRENEK Udaltzaingora jo du, eta udaltzainburuak emandako erantzunaren arabera, ez da beraien erabakia izan leku hori aukeratzea, eta agindu berriren bat jaso artean behintzat, hori izango dela udaltzainen autoentzako aparkalekua gaineratu du.



Txalo bero bat Mintxeta taldeari, Gau Krosa antolatzeagatik: “Atzerapenarekin bada ere, txalo bero bat eman nahi diet duela zenbait aste Gaueko Krossaren antolatze lanetan aritu ziren guziei. Lanak primeran burutu zituzten eta giro aparta sortu zuten herrian. Horrelako ekitaldi bat antolatzeko jende asko behar da lanerako prest, eta horien ahaleginak txalotu eta eskertu beharrekoak dira”.



Erretratu zaharra



1960

Aste honetako erretratu zaharra Gloria Canalesek lagatakoa da. 1060an aterata dago argazkia, San Bartolome jaietako feria egunean, hain zuzen ere. Gaur egun bezala, garai hartan ere, baserritarrez jantzita irteten zen jendea kalera, eta hirukote dotore honek, Nafarroa Plazan atera zuen erretratua, Kultr Etxe aurrean. Gogora ditzagun zein diren erretratuko protagonistak:

Ezkerretik eskumara: Julia Canales, Jose Angel Arozena eta Maria Elena Arozena (†).



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON
VILARCHAO**

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Lantutua: eguzi, aluminio, PVC
Pisua orokorra



San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 749 670

Asto-kaka

Urriak 14 eta 15

Plaza Txikia-Leku Eder



ESKAINTZA

Urriaren 14an, barixakuan, Leku Ederreko karpan 18:30etik 20:30era txartel hau erakutsiz gero, pintxo eta tragoa 2 euroan lortuko dituzu.

* Existentziak bukatu arte, balioko du eskaintzak.



KONTZERTUA

Herriko lau taldek girotuko dute Asto-kakaren astebukaerako barixaku gaua. Pintxo eta razioak afaldu ostean, gaueko 22:30ean emango zaio hasiera kontzertu-maratoi txiki honi eta hurrenez-hurren, Mari Juli eta Agurtzane lehenengo, Hankahutsik gero, Napoka Iria hurrengo eta K 104 taldeak joko du azkenik, jaialdiari bukaera emateko. Denerako eta denentzako jaialdia antolatu dugu; denon gustua egitea zaila izaten den arren, gehienak ohera gustura joateko modukoa. Eta tartean, berezitasun eta guzti. Jakin baitakigu, Napoka Iria taldea bere lan berriaren aurkezpen kontzertuak eskaintzen ari dela eta hortaz, egongo da sorpresak harrapatutakorik ere. Gonbidatuta zaudete guztiok, musikaren jaira!

Hemen dituzue zapatu eguerdian Plaza Txikiaren inguruan, beraien kakaren zain edukiko gaituzten Akeiko astoak. Irrikaz, lorik ere ez dute jada ondo egiten, beraien kakaren kontura norbait aberastuko dutela-eta.

MARI JULI ETA AGURTZANE




Aspaldi entzun gabeko kantua gorde digute, primizian balitz moduan, belarriak goxatuko dizkigu bikoteak.

HANKAHUTSIK




Oinetakoak kentzearen truke, poesia eta kantuz bustiko dute gaua.

NAPOKA IRIA



Herritik kanpo ere ezagun den bikotearen doinuez gozatzeko aukera gurean. Pribilejiatuak gu!

K-104



Lagun zaharren zorteko gu, aspaldi jo gabekoak ere badatoz. Gorputzak astintzeko onak, koellotarrak.

ASTOEN AURKEZPENA



IZENA: **BENITA**

DIETA: Langostinoak eta kabierra astegunetan; domeketan berakatz-zopa.

AFIZIOAK: Hondartzara joatea eta paletan jolastea gustatzen zaizkio.

AMETS BAT: Zaldi bihurtzen dela eta lasterketan parte hartzen duela amesten du astean behin gutxienez.

APOSTUA: Baietz X-ek baino azkarrago egin kaka.



IZENA: **KONDESA**

DIETA: Langostinoak eta kabierra astegunetan; domeketan berakatz-zopa.

AFIZIOAK: Hondartzara joatea eta paletan jolastea gustatzen zaizkio.

AMETS BAT: Zaldi bihurtzen dela eta lasterketan parte hartzen duela amesten du astean behin gutxienez.

APOSTUA: Baietz X-ek baino azkarrago egin kaka.

ESKAINTZA

Urriaren 14an, barixakuan, Leku Ederreko karpan 18:30etik 20:30era txartel hau erakutsiz gero, pintxoak eta tragoa 2 euroan lortuko dituzu.

* Existentziak bukatu arte, balioko du eskaintzak.



ZUHAITZ GURRUTXAGA

VANPEPEL TALDEKO ABESLARIA



“Kontzertuetan eskaintzen dugunaren isla izango da gure lehen diskoa”

Vanpopel dauka izena Zuhaitz Gurrutzagaren musika proiektu berriak. Bera da taldeko abeslaria eta gitarra ere jotzen du, baina oraingoan, Elgoibarren oso ezagunak diren beste bi musikarirekin elkartu da taldea osatzeko: Aitor Badiola Arima Beltza taldeko kide ohiak jotzen du gitarra, eta Maria Armendarizek baxua eta txeloa jotzeaz gain, bigarren ahotsa jartzen die abestiei. Urriaren 11n egingo dute disko berriaren aurkezpena Donostiako Doka kafe antzokian, eta ahal duten bezain pronto, Elgoibarren ere joko dutela adierazi du Zuhaitz Gurrutzagak.

Nondik dator Vanpopel izena?

Jean Paul Van Poppel txirindulari ohiaren izena hartu dugu talderako. Beti iruditu izan zait fonetikoki izen polita dela, eta "pop" hitza ere barnean daramanez, egokia iruditu zitzaigun. Guk izena apur bat aldatu egin dugu, eta *Vanpopel* jarri diogu, dena jarraian.

Aitor Badiolak, Maria Armendarizek eta zuk osatzen duzue taldea. Nola egin zenuten bat hirurok?

Aitorrek proposamen bat egin zidan behin, eta, nahi banuen, lagunduko zidala eginak neuzkan abestiak apaintzen esan zidan. Ez nuen birritan pentsatu beharrik izan, eta handik bi egunetara deitu nion lehen entsegua egiteko. Ondoren Maria elkartu zitzaigun, taldean orden pixka bat ipintzeko.

“Ea Elgoibarren kontzertu polit bat emateko momentua aurkitzen dugun”

Aitor Badiola eta Maria Armendariz aspalditik dabilta musikagintzan. Baina, zu, nola iritsi zara musikari izatera?

Orain dela urte batzuk hasi nintzen gitarra jotzen, futbolak uzten zidan denbora libre betetzeko asmoz. Pixkanaka-pixkanaka abesti xume batzuk konposatzen hasi nintzen, eta orain dela bost hilabete lehenengo aldiz igo nintzen eskenatokira, nire taldekideen babesarekin.

Zein musika estilo egiten duzue?

Nik eginiko abestiak pop estilokoak direla esango nuke. Aitor, aldiz, blues estilotik dator, eta nolabait nabarmentzen da bere ukitua abestiei egin dizkien konponketetan. Gero, Mariaren bigarren ahotsak goxotasuna ematen die melodiei.

Musikari guztiak daukate gustuko talderen bat. Zuek zein musika taldetan oinarritzen zarete?

Nik "indie" deritzan eszenako pop taldeak entzun ohi ditut, batez ere: Love of Lesbian, Vetusta Morla... Aitor eta Mariak, aldiz,

beste musika estilo batzuk nahiago dituzte: Eric Claptonetik hasi, eta, Joe Bonamassaraino doaz gustu horiek. Gustuetan oso urrun gaude, eta beharbada horrek aberastuko du Vanpopelen musika.

Zeri abesten dio Vanpopel?

Orain arte letrak egitearen rola nik hartu dut taldean, eta nire bizipen pertsonalei buruz idazten dut, gordintasun osoz. Letra oso errealistak dira, eta ez dut ezertxo ere ezkutatzen.

Zure amak ere abestiren bat idatzi omen du. Nola hartu dute etxean zure fazeta berri hau?

Aurten joan berri zaigun amamari eskainitako poema bat egin zuen nire amak, eta izugarri gustatu zitzaidan. Melodia bat egin nion, eta beharbada, eskaintzen ditugun guztietatik, abestirik hunkigarrienetakoa izango da. *Parrapean* dauka izena kantak.

Abesti gehienak gaztelaniaz abesten dituzue. Zergatik?

Abesti hauek egiten hasi nintzenean, neska-laguna gaztelarra nuen. Letrak berak ulertzea zen nire lehen asmoa, sarritan bera izaten zelako nire inspirazio iturria. Ondoren, gaztelaniaz idazten eta abesten gustura sentitzen nintzela konturatu nintzen, eta aukera horri segitzea erabaki nuen.

Lehen diskoa kaleratzeaz zaudete, eta urriaren 11n egingo duzue aurkezpena Donostiako Doka antzokian. Zer aurkituko dugu disko berri horretan?

Disko akustikoa izango da. Sei abestiz osatuta dago, eta *Con celos y señales* izenburua jarri diogu. Kontzertuetan eskaintzen dugunaren islada zehatz eta garbia izango da gure estreinako diskoa, inongo engainu eta tranparik gabekoa, alegia.

Kontzertu dezente eman dituzue udan, eta urrirako ere ikusi dut badituzuela emanaldiak. Noiz ikusiko zaituztegu Elgoibarren?

Badaukagu Elgoibarren emanaldia egiteko gogoia, gure proiektu berria herrikideei erakusteko. Ea, berandu baino lehen, leku eta momentu egokiak aurkitzen ditugun, Elgoibarren kontzertu polit bat emateko.

Nola uztartzen dituzue zuen lanbideak eta musika?

Ez da lan erraza! Nik asteburuak hartuta izaten ditut Lemoako futbol partidekin, eta kontzertuak emateko egunik onenak ostiral edo larunbatak izaki, ez da samurra izaten datak lotzea. Ensaiaitzeko ere zailtasunak izaten ditugu, Aitor eta Mariaren lan orduak eta nireak oso desberdinak direlako.

“Taldekideen babesa behar beharrezkoa dut lasaitasunez eta ziurtasunez abesteko”

Zer sentitzen duzu eszenatoki gainean? Bakarrik ala taldearen babesean sentitzen zara gusturago?

Konturatu naiz benetan gustuko dudala eskenatokira igotzea. Jendeak, gainera, harrera ona egin dio gure proiektuari, eta orain arte behintzat dena ondo joan da. Noski, taldekideen babesa behar beharrezkoa dut, lasaitasunez eta ziurtasunez abesteko.

Abesti bakoitzaren istorioa kontatzen duzu kontzertuetan. Hortik sortu al dira zure "istorio musikatuak"?

Bai, halaxe da. Abestuko dugun abestia nondik nora doan esplikatu ohi dut kontzertuetan, kontakizun horiei umore puntu bat emanez. Modu horretan jendeak letrei arreta berezia jartzea nahi izaten dut. Oraingoz ondo funtzionatu du musika eta monologotxoan uztartze honek.

'Istorio Musikatuak', Euskadi Irratian. Nola hasi zen irratiko ibilbide hori?

Udan kolaboratzeko eskaintza egin zidan Manu Etxezortuk, Faktoria programako esatariak. Gustura gelditu omen ziren emaitzarekin eta urte guztian jarraitzeko proposamena egin zidaten. Pare bat abesti ipini ohi ditut, eta haien ildotik istorioren bat kontatzen dut. Astelehenero eguerdiko 12:00ak aldera izaten da tartea.

Iban Barrenetxeak irabazi du Euskadi Saria literatura lanaren ilustrazioaren atalean

Bombastica Naturalis lanarengatik jaso du saria Barrenetxeak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak banatzen ditu Euskadi Sariak eta argi dago, epaimahaiari asko gustatu zaiola ilustratzaile elgoibartarraren lana. Saria jasotzeko hiru lan finalisten artean, bi Barrenetxearenak izan dira.

‘Lan dotorea’

“Ibanen ilustrazioek oso diseinu dotore eta dinamikoa dute, eta akabera preziosista dute argiztapenean eta egituretan; xehetasun txikienez ere arduratu egin da”. Hitz horiekin eta beste laudorio ugariarekin arrazoitu du epaimahaiak Iban saria eman izana. Epaimahaiaren iritziz, marrazki zehatz eta zorrotzak dira Barrenetxearenak, eta testua “ezin hobeto” harmonizatzen da horiekin.

Ez da lan honek jasotako lehen saria. Bratislavako Bienalean ohorezko plaka lortu zuen orain gutxi, eta Junceda Iberia sariko aurreko edizioan ere finalista izatera iritsi zen.

Euskadi Saria dela eta, 18.000 euro jasoko ditu Barrenetxeak eta lan irabazlea beste hizkuntza batean ere argitaratzen bada, 4.000 euroko beste sari bat jasoko du.



Gipuzkoako bertsolari txapelketako kanporaketa jokatu du Uxue Alberdik bihar



Lasarte Oriako Manuel Lekuona kultur etxean dauka bertso-zita Uxue Alberdik bihar, arratsaldeko 17:30ean. Ainhoa Agirreazaldegiren, Iñaki Apalategiren, Amaia Iturriotzen Oihana Iguaneren eta Andoni Otamendiren kontra neurtu beharko ditu indarrak. Saioa irabazten duenak lortuko du final-laurdenetarako zuzeneko txartela eta gainontzekoak, puntuazioaren arabera sartuko dira barruan.

Halaxe gertatuko da joan den astean Elgoibarren jardundako bertsolarien ere. Final-zortzirenetako bosgarren saioa Elgoibarko Herriko Antzokian izan baitzen.

493 punturekin, Jokin Urangak irabazi zuen saioa eta hortaz, hurrengo faserako txartela eskuratu du. Gainontzekoak, bere aldean puntuazio bajua lortu zuten, eta ikusi egin beharko da datozen saioak jokatu ostean, final-laurdenetan sartuko diren ala ez.

Haizea taldearen ekintzak

Datorren eguaztenerako irteera antolatu du Haizea Emakume Taldeak. Gasteizko Santa Catalina de Badaia lorategi botanikora izango da irteera eta Pitxintxun eman behar da izena. Bi aukera daude: autobuserako eta parkerako izena ematea (22 euro bazkideentzako eta 25 besteentzako) edo, autobuserako eta parkerako izena emateaz gain, bazkarirako ere ematea (40 euro bazkideentzako eta 43 besteentzako).

Horretaz gain, hainbat dantza mota irakasten direla ere jakinarazi dute. Interesatuak, 943 700 791 zenbakira deitu behar dute.

Kontzertua eguean

Elgoibarko musika eta dantza federakuntzak antolatuta, Ensemble San Ignacio de Moxos taldeak kontzertua eskainiko du, datorren eguean, hilaren 13an, Herriko Antzokian, arratsaldeko 19:30ean.

Elgoibarko toponimiari buruzko saioak ireki zuten 'Izanaren izena' hitzaldi zikloa eguaztenean

Jesus Mari Makazagarena izango da zikloko hurrengo saioa, hilaren 19an

Toponimia izan zuten hizpide eguaztenean *Izanaren izena* hitzaldi zikloaren estreinako saioan. 35 pertsona inguru batu zituen deialdiak eta bi zatitan banatuta, Elgoibarko toponimiaren nondik norakoak azaldu zituzten hizlariek.

Lehenengo eta behin, Amaia Pinacho eta Nerea Alabak hartu zuten hitza, Elgoibarko toponimiari buruz eurek egindako lana azaltzeko. 45 elgoibartarrekin egon dira ikerlariak lana egin ahal izateko, eta elkarrizketa horietan lortu ei dituzte toponimo asko eta asko. Eurek egindako lanarekin, abenduan Udalak Elgoibarko toponimoen mapa kaleratuko duela azaldu zuten.

Horren ostean, Mikel Gorrotxategi "Zergatik gastatu dirua toponimia aztertzen?" galderari erantzuten ahalegindu zen bere hitzartzean. Ikerketa mota hauek defendatu zituen, herri baten historia ezagutzeko ezinbestekoak direla argudiatuz, eta erakutsi zuen nola, aurrez aipatutako lanak ere, jada existitzen ez den Elgoibar bat erakusten duen. Bukatzeko, eginda dagoen lan horren zabalkundearen inguruan jardun zuten, bertaratutakoaren galderari erantzuten hasi aurretik.



Makazaga hurrengoa

Hitzaldi zikloan, Jesus Mari Makazagak "Elgoibarren, astuak goen eta barren: ekinaldi bat Elgoibarko euskararen gainean" izeneko hitzaldia eskainiko du urriaren 19an, asteazkenean.

Bihar bukatuko dira Errosario kaleko jaiak



Txafligua jaurti eta Ama Birjinari lore eskaintza egin ostean, urteroko Txokolate-jana egin zuten plazan Errosario kaleko jaien lehen egunean. Gaurko eta biharko ere makina bat ekintza daude antolatuta. Meza, errosarioa eta Salbea ez ezik, Plazara bisita egin ohi duen Kiribil ere animatuko da jaietara, Munduko II. Igel-toka jaurtiketaren txapelketa jokatuko da, eta eguna bukatzeko, afari herrikoia egingo dute Kultur Etxeko sotoan. Bihar berriz, Lagunak taldearen eskutik, infantil, kadete eta seniorren pilota partiduak jokatuko dira Plazan, eta Herri Kirolak Nafarroa Plazan.

Luengo eta Juaristiren margo erakusketa Kultur Etxean



Pedro Luengo eta Udane Juaristi margolarien erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean. Denera 28 oliozko lan jarri dituzte erakusgai; Pedro Luengoren lanetan pertsonak agertzen dira batipat eta Udane Juaristirenean berriz giro urbanoa; hiriak, bereziki. Datorren urriaren 16ra arte egongo da erakusketa ikusteko aukera. Aste-gunetan iluntzeko 18:30etik 20:30era, zapatuetan 12:00etatik 14:30era eta 19:00etatik 21:00etara eta domeketan 12:00etatik 14:30era.

Gaur arratsaldean jokatuko dute 10 Bai pilota txapelketako finala

Plaza Handian izango da partida, 18:00etan hasita

Gerrikabeitia-Karmel eta Basueta-Portu bikoteek jokatuko dute gaur, 10 Bai pilota txapelketako finala. Norgehiagoka Plaza Handian jokatuko dute, 18:00etatik aurrera. Eguaztenean jokatuko zuten final-aurrekoak, eta ondorengoak izan ziren emaitzak: Gerrikabeitia-Karmel 22 / Lazarobaster-Sugar 21; eta Basueta-Portu 22 / Zubizarreta-Agirrebeña 15.



Elgoibarko bikoteak lehen postuan daude Gipuzkoako pala txapelketan



Lagunak taldeko pala bikoteak lehen postuan daude Gipuzkoako txapelketan, bakoitza bere mailan. Mancebo - A. Etxeberria eta J. Etxeberria - Gallastegi dira bikoteak. Bigarren eta hirugarren mailan dihardute, eta maila bietan partida guztiak irabazi dituzte elgoibartarrek. Lagunak taldeko pala taldean beste bikote bat sartu da aurten, Iban Tueros eta Eneko Urain eibartarrek osatutako, alegia.

Behobia-Donostiara joateko autobusa

Azaroaren 13an jokatuko dute aurtengo Behobia-Donostia lasterketa, eta Elgoibarko Kirol Patronatuak autobusa antolatu du. 8:30ean irtengo da autobusa King-Kong autobus geltokitik. Bazkideek 13 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 16 euro. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman beharko dute izena, azaroaren 10erako.

11 elgoibartarrek hartu zuten parte Zumaiko Zakila Bira lasterketan



Joan zen zapatuan jokatuko zuten Zumaiko Zakila Bira lasterketa herrikoia. 700 lagun baino gehiagok eman zuten izena 20 kilometroko maratoni erdian, baina horietatik 609k lortu zuten lasterketa amaitzea. Helmugan azkarrenak, David Martín eta Claudia Behobide izan ziren. Elgoibartik, 11 lagunek hartu zuten parte.

Idotorbera bizikleta eta rolleski igoerak eguaztenean

Lagun Taldeak antolatuta, San Pedrorra txirrindulari igoera jokatuko dute datorren eguaztenean. 12:00etan hasiko da bizikleta proba, Plaza Handian, eta, 12:30ean rolleski igoera hasiko da, Morkaikok antolatuta. Bi ibilbide egongo dira aukeran: bata, Plaza Handitik Idotorberaino, eta bestea, erdi bidetik hasita, gutxi gora behera. Interesatuak Morkaikoren egoitzan edo morkaiko@morkaiko.net helbidean eman dezakete izena.

Txirrindu denboraldiari amaiera emateko bazkaria, Mendaron

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak denboraldi amaierako irteera eta bazkaria antolatu ditu, urriaren 15erako. 10:00etan elkartuko dira Goñati frontoian bizikleta itzulia egiteko, eta ondoren, bazkaria egingo dute Landa jatetxean. Interesatuak, mte.mendaro@hotmail.com helbidean, 606747756 telefonoan, Landa jatetxean edo Txirristaka tabernan eman dezakete izena.

Iruiturrira irteera didaktikoa egingo dute domekan

Morkaiko mendizale elkarteak eta Atxutxiamaika aisialdi taldeak antolatuta, Iruiturrira irteera didaktikoa egingo dute domekan, 9 eta 12 urte bitarteko umeek.

1. Xabier Bergaretxe (1:13:11)
2. Iñigo Iturbe (1:23:54)
3. Asier Arrieta (1:28:30)
4. Ignacio Perez (1:38:40)
5. Asier Arzamendi (1:40:17)
6. David Garcia (1:40:39)
7. Jabier Oñederra (1:42:13)
8. Mikel Aizpitarte (1:42:20)
9. Elias Fernandez (1:42:30)
10. Angel Oñederra (1:48:49)
11. Mikel Kortabitarte (1:50:32)

Igon Manzisidorrek eta Nerea Amilibiak irabazi zuten Aiastiako korrika igoera

Revert eta Lendinez izan dira lehen elgoibartarrak



Sailkapena

1. Igon Manzisidor (20:45)
2. Igor Fernandez (22:16:62)
3. Jon Revert (23:03:59)
4. Nerea Amilibia (24:28:25)
5. Javier Fernandez (24:35:69)
6. Aitor Ibabe (24:38:40)
7. Jose Antonio Ochoa (24:47:66)
8. Ainhoa Lendinez (25:02:20)
9. Javier Etxaniz (26:46:41)
10. Nerea Lendinez (28:08:40)
11. Fernando Loiola (28:41:11)
12. Egoitz Arrizabalaga (29:00:24)
13. Fernando Salegi (29:24:01)
14. Javier Ernando (30:00:99)
15. Antonio Fernandez (30:50:03)
16. Pilar Lama (31:57:91)
17. Nicolas Polo (31:58:24)
18. Iker Oñederra (32:18:50)

Igon Manzisidor debarrak irabazi du Aiastiara korrika igoera mutiletan, 20:45 denborarekin, eta emakumezkoetan, Nerea Amilibia izan da irabazlea, 24:28 denborarekin. Aiarak laugarren aldiz irabazi du lasterketa, baina ezin izan du iaz ezarri zuen errekorra (24:09) hobetu. Helmugaratzen lehen elgoibartarrak Jon Revert eta Ainhoa Lendinez izan dira. Lehenengo auzotarraren saria, bestalde, Fernando Loiolak irabazi du. Iazkoarekin alderatuta asko jaitsi da parte hartzaile kopurua, 46 lagunetik 18ra, hain zuzen ere. Ekitaldi ugari bat egin zuten asteburuan, eta horiek guztiak izan dute zerikusirik parte hartzaileen kopuruan, antolatzaileen esanetan.

Jon Larrañaga mendaroarrak Euskal Herriko lokotx-biltze txapelketa irabazi du

Jon Larrañaga mendaroarrak Euskal Herriko Lokotx-Biltze Txapelketa irabazi zuen domekan, Aizarnazabalen. Zazpi lagunek hartu zuten parte, hiru txandatan banatuta, eta Jon Larrañagak hirugarren txandan hartu zuen parte, Eneko Garmendiaren kontra. Bakoitzak 1,25 metroko tartearrekin kokatutako 50 lokotx batu behar izan zituzten, eta Garmendiari irabazteaz gain, zazpi partaideen artean denborarik onena egin zuen mendaroarrak (6:22). Txapelketara "oso ondo" prestatuta joan zela azaldu du eta pozik dago oso lortutako txapelarekin.



EMAITZAK

FUTBOLA

Alaves B 2 – Haundi 0 (3. maila)
Urola 0 – Elgoibar 1 (Ohorezko maila)
Lagun Onak 0 – Elgoibar 0 (Ohorezko inf.)
Bergara B 0 – Elgoibar 9 (Kad. A)
Elgoibar 5 – Antzuola 0 (Kad. B)
Elgoibar 4 – Lagun Onak 0 (Ohorezko inf.)
Anaitasuna 1 – Elgoibar 0 (Neskak)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Murumendi 22 – Lagunak 11 (1. mailako nag.)
Lagunak 22 – Aurrera Saiaz 20 (2. mailako nag.)
Añorga 22 – Lagunak 14 (1. mailako jub.)
Pala
Lagunak 25 – Pina kurdin 3 (3. mailako nag.)
Lagunak 25 – Loiolatarra 15 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 3 – Zierbena 3 (2B)

ESKUBALOIA

Basauri 26 – Alkorta Elg. 34 (Sen. mut.)
Askartza 27 – Tecnifuelle Elg. 33 (Sen. nesk.)
Hondarribi 26 – Beristain Elg. 18 (Jub. mut.)
Lauko Elg. 24 – Atletico Basauri 23 (Jub. nesk.)
Grupo Eibar Elg. 41 – Egia 13 (Kad. mut.)
IMH Elg. 30 – Basauri 22 (Kad. nesk.)
Astigarraga Elg. 26 – Aloña Mendi 18 (Kad. nesk.)
Pulpo 13 – Bankoa Elg. 29 (Inf. mut.)
Pulpo 31 – Txarriduna Elg. 23 (Inf. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 8

17:00 Haundi – Laudio (3. maila)
11:30 Elgoibar – Ikasberri (Ohorezko Jub.)

Domeka, 9

12:00 Elgoibar – Arizmendi (Neskak)
16:00 Elgoibar – Mondragon (Ohorezko maila)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 8

9:30 Aterpe Elg. – Bera Bera (Inf. nesk.)
10:45 Ikus Elg. – Bera Bera (Inf. nesk.)
19:00 Alkorta Elg. – Deusto (Sen. mut.)
Domeka, 9
10:30 IMH Elg. – Pulpo (Kad. nesk.)
12:00 Lauko Elg. – Pulpo (Jub. nesk.)

ESKU PILOTA

Barbakua, 7

21:15 Lagunak – Aurrera Saiaz (1. mailako jub.)
21:45 Lagunak – Ilunpe (1. mailako nag.)
22:30 Lagunak – Altzatarra (Pala. 2. mailako nag.)

LANA

ESKAERA

- Lehen hezkuntzako magisteritza duen neska, LHko partikularrak emateko prest. ☎ **637 258 819**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Papelak araututa ditut. ☎ **697 649 399**
- Ingeleseko partikularrak ematen ditut. Bakarka edo taldeka. First mailara arte. ☎ **626 419 354**
- Emakume euskalduna umeak zaintzeko prest. 16:00-19:00. ☎ **687 693 200**
- Gizona txofer edo banatzaile lanetarako prest. ☎ **697 649 399**
- Mutila lanerako prest. Banatzaile, eraikuntza lanetarako, sukalde laguntzaile, nagusi zaintzaile... ☎ **690 861 846**
- Klase partikularrak ematen dira. LH eta DBHko ikasgai guztiak eta Batxilergoko ingelesa. Talde txikietan edo banaka. Esperientzia eta titulazioa ditugu. ☎ **617 226 305 / 669 230 428**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **648 603 029**
- Klase partikularrak ematen dira. Batxilergoko matematika, LH, DBH eta Kontabilitatea. ☎ **666 042 710**
- Alemanierazko klase partikularrak ematen ditut, haur, gazte eta helduentzat. ☎ **670 793 312**
- Elgoibarren bizi den neska euskalduna umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **690 984 397**
- DBHko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**

- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **635 313 375**
- Gizonezkoa adinekoak zaintzeko prest. ☎ **681 154 706**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **690 925 929**
- Neska edozein lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **663 115 241**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **699 813 826**
- Neska gaztea garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. ☎ **628 014 327**
- Neska nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **678 932 443**

ESKAITZA

- Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska izatea nahiago dugu. ☎ **943 121 262**
- Emakume edo neska euskalduna behar da, orduka umeak zaintzeko. ☎ **699 217 721**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Berritutako etxea alokatzen da erdigunean. Altzari eta igogailuarekin. ☎ **685 706 001 (20:30-23:00)**
- Logela bakarreko apartamentua alokagai Erosario kalean. Altzariekin. ☎ **629 415 984 (18:00etatik aurrera)**

SALMENTA

- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **648 191 076**
- Etxe berria salgai Urruzunon. Hiru logela, bi komun, egongela-jangela, terraza eta sukaldia altzariekin. ☎ **676 404 365 / 669 621 164**

GARAJEAK

- Garaje itxia salgai, Pista Beltzean. ☎ **637 990 159 (Ander)**

BESTELAKOAK

- Kanarioak ihes egin du Ubitarte inguruan. Anila horia dauka. ☎ **647 704 399**
- Saxofoia salgai. Altua. Yamaha, Eb, YAS-275, c/fa sost. Urte betez erabilia. 650 euro. ☎ **609 893 898 (Arantza)**
- Urrezko pultsera galdu dut. Bost elefante eta lau inizial ditu. Sentimenduzko balio handia du. Saritu egingo da. ☎ **690 701 118**

KINTOAK

- 1972an jaio eta zortzigarren maila Aita Agirre ikastetxean egin zutenek kinto bazkaria antolatu dute azaroren 5erako. Interesatuak, deitu ondorengo telefonoe-tara: ☎ **678 437 633 (Elena) / 619 966 434 (Ana)**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)

Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro

Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.

Zure semeak ondo ikusten duen seguru zaude?

FEDEROPTICOS IKUS-en ikusmen azterketak egiten ditugu, begi alferra, desbideratzea edo ikusmen txarra antzemateko, eta era berean, ikasketa arazo posibleak eragozteko.

FEDEROPTICOS IKUS
Jose de Ariztegui kalea, 10
Tel: 943 157 574 - AZPEITIA

San Bartolome kalea, 10
Tel: 943 743 734 - ELGOIBAR



Jeku eder
horts klinika

Elena Herrera Lobo Dra.
Odontologoa - Cel. 20.800.675

Berria!
Hauren Hortzagin programa (PADI).

Zatoz eta galdetu ezazu inongo konpromosirok gabe.

- ESTETIKA-
- TRATAMENDU GUZTIAK ZENTRO BEREAN-
- ORDAINTEKO ERREZTASUNAK (interesik gabe)-
- Diagnostiko digitala
- Estetika (zuriketak)
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI



Aita Agirre Enparantza, 5 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Tel. 943 53 00 53
jekueder@infoned.es



• Zorionak, **Aimari**! Dagoeneko bi urte! Patxo handi bat etxeko txapeldunari.



• Zorionak, **Maialen**, 2 urte egin dituzulako. Patxo handi bat etxeko partez.



• Zorionak, **June**, zure hirugarren urtebetetzean. Muxu handia amaxoren eta aitaxoren partez.



• Zorionak, **Jakes**, domekan 3 urte egingo dituzulako. Hain alaia eta zintzoa izategaitik, muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Irati**, urtebete egin duzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **amurall**! Oso ondo pasa dezazula zure egunean! Familia guztiaren partez!



• Zorionak, **etxeko atezainari**! A zelako bosgarren festa, txapeldun!



• Zorionak, **Jone**, zure urtebetetze egunean. Urriaren 5ean, 7 urte bete dituzu. Askoi maite zaitugu. Egun zoriontsua igaro, maitea.



• Zorionak, **Jairo**, zure lehen urtebetetzean. Muxu handi bat etxeko printzeari. Aita, ama, eta bereziki, arreba Amandaren partez.



• Zorionak, **Leire**, urriaren 1ean urte bat egin zenuelako. Muxu handi bat etxeko, eta bereziki, lbairen partez.



• Zorionak, **Alazne**, gaur 3 urte egin dituzulako. Muxu asko familiakoen partez.



• Zorionak ez dizugu esango, kapulla! Honi deitzen jake, abandono en toda regla! Beraz, hobe dozue primeran pasau, ta bueltan erregaluakin etorri! Gozatu merezitzako moduan!



• Zorionak, **Kener**, eta muxu mordoska bat bihar 3 urteko egingo dituzulako. Erabat maiteminduta gaituzu! Etxeko partez.



• Zorionak **Danel**, asteazkenean 9 urte egin zenituelako. Etxeko partez. Jarraitu orain arte bezain jator.



• Zorionak, **Ander**, zure seigarren urtebetetzean. Etxeko, eta bereziki, Ainhoa, Garazi, Naroa eta Nahiaren partez.



• Zorionak, **Ion txipiron**, atzo 5 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxeko partez.



• Zorionak, **Markel**, domekan 4 urte egingo dituzulako. Ondo pasa Errioxan! Familiakoen partez.



• Zorionak, **Garazi**, astelehenean 5 urte egingo dituzulako. Guraso, anaia Unai eta Elur, lehengusu, eta etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Garazi**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Etxeko, eta bereziki, ahizpa lru-neren partez.



• Zorionak, **Aida**! Ondo pasa zure 10. urtebetetzean. Tamara eta gurasoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Nora**, 3 urte egingo dituzulako domekan. Amamaren partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Bidatzil**! Domekan 6 urte egingo ditu, etxeko printzesak.



• Zorionak, **amatxo**, astelehenean zure urtebetetze eguna delako. Muxu asko familiakoen partez. Ondo pasa zure egunean.



• Zorionak, **bikote**, zuen urrezko ezteietan. Familiakoen, eta bereziki, Nerea eta Danelen partez.



• Zorionak, **Ifigo eta Miren**! Zapatuan oso ondo pasatu genuen. Bidai ona egin. Lagunen eta familiakoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARRENEKO bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

7 barixakua

Antzerkia

20:00 eta 22:15 'Ocasiones especiales'

Txalo Produkzioak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

8 zapatua

Tailerra

10:00 Autodefentsa

Emakumeentzako ikastaroa, Inazio Bereziartua musika eskolan.

9 domeka

Kirola

10:00 Intxortara irteera

Ikastolako guraso taldeak antolatuta, Intxortara egingo dute irteera.

Kirola

9:00 Iruiturrira irteera

Morkaikok eta Atxutxiamaikak antolatuta, 9 eta 12 urte bitarteko umeentzako irteera didaktikoa.

Antzerkia

16:30 'Galtzagorriei to, Inaxito'

Lanko Produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

12 eguaztena

Kirola

12:00 San Pedrorra igoera

Lagun Taldeak antolatuta, San Pedrorra txirrundulari igoera.

Kirola

12:30 Rolleski igoera

Morkaikok antolatuta, San Pedrorra igoera.

13 eguena

Musika

19:30 'Ensamble San Ignacio de moxos'

Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, Herriko Antzokian.

ERROSARIO KALEKO JAIK 2011

7 BARIXAKUA

9:00 Meza nagusia

17:30 Kiribilka,

Atxutxiamaikak antolatuta

18:30 Mauxitxa txarangaren kalejira

19:00 Errosarioa eta meza

19:30 Munduko II. igel-toka

jaurtiketa txapelketa

20:00 Salbea

21:15 Afari herrikoia

8 ZAPATUA

PILOTA: LAGUNAK TORNEOA

10:30 Infantilak

11:15 Kadeteak

12:15 Seniorrak

13:00 Herri kirolak

Nafarroa plazan.



Urriaren 12a Pilar Eguna dela eta,
Ludoteka itxita egongo da.



Urriaren 12a Pilar eguna dela eta,
asteartean eta asteazkenean
Gaztelekua itxita egongo da.

OKINDEGIA

9 domeka EIZAGIRRE

12 eguaztena FOTERO

FARMAZIAK (24 orduz)

7 Yudego

8 Zabaleta

Goizez: Garitaonandia-Bidasolo

9 Zabaleta

10 Etxeberria (Errosario)

11 Ibañez

12 Zabaleta

13 Etxeberria (Santa Ana)

14 Fernandez

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez- Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta- Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Arriya (La piedra)»

8, zapatua: 19:00/20:00


9, domeka: 19:00

10, astelehena: 21:30

12, eguaztena: 19:00

Zuz. Alberto J. Gorritiberea.
Aktoreak: Ramon Agirre, Begoña
Maestre, Kandido Uranga.
Generoa: drama. Iraupena: 1:45.

Apustu baten eraginez, hiru klan
lehiatuko dira Euskadiko herri txiki
batean. Hiru bikote elkarren
artean nahastuko dira, eta
denborak aurrera nola egiten
duen ikusiko dute.



Gotzon Garate Goihartzun (1934-2008)

*“Munduak gure hizkuntza eta kultura onets dezan,
geuk izan behar dugu lehenak gure hizkuntza
eta kultura ederresten eta goratzen”.*

Urriaren 8a berezia da guretzat, Gotzon.

Zutaz gogoratzen gara, eta gure euskaltasunak dirdira berezia izaten du egun horretan.



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihok

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolln, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 · Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

